

noaua

**Euskaraldiko txapak
asteburu honetan
banatuko dituzte**

**Langile zein
langabetuentzat doako
ikastaroak eskainiko ditu
Usurbilgo Lanbide Eskolak**

**Jakoba Errekondok liburu
berria plazaratu du:
Etxeko landareak (Argia)**

Iugatz Illarramendi, Zubietako Eskola Txikiko zuzendaria

**“Eskolak irekita jarraitzen du.
Hori da garrantzitsuena”**

Ordutegi gehiago eskuratu nahi badituzu,
hemen aurkituko dituzu:

* NOAUA! * UDALETXEA

Edo deskargatu ezazu www.noaua.eus-etik
edo QR kodea eskaneatu zure mugikorrarekin!

tren eta autobus



noaua

ordutegia 20/21

UDABERRIKO

BERTSO SAIOA UDAZKENEAN

Azaroaren 8an 19.00etan

Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean



Ane Labaka | Miren Amuriza | Alaiia Martin | Miren Artetxe

Gai jartzailea: Amaia Agirre. Musikariak: Gari Otamendi eta Araitx Bizkai

Sarrerak: 5,50 euro | 10 sarrerako bonoa 45 euro

Salgai: Manuel Lekuona kultur etxean eta Kutxabank-en



Albisteak iruditan

Furgoneta bat kaltetu dute Etxealdian

Aldameneko argazkiarekin batera, Onintza Gartzia Udabek salaketa-ohar hau bidali du NOAUA!ko erredakziora: “Asteburuan nire furgoneta pintada bat egin diote eta baita marraz ere zerbait zorrotzarekin”. Etxealdia inguruan gertatu zen aurreko larunbatean, “gau partean”, Onintzak azaldu digunez. “Ez dakit pintada gehiago egin dituzten eta salaketa gehiago jarri ote diren”. Izan ere, ohar honen berri eman zigun unean salaketa jartzekoa zen Udaltzaingoan.



Pintadaz gain, marraz egin zizkioten furgonetan “zerbait zorrotzarekin”.

Laburrean

Antzerki ikastaroak eskaintzeko proposamena

Andrea Arruti Etxabe antzerki ikastaroak eskaintzeko gogoz dago. Adin guztiei irekia dago proposamena. Informazio gehiago telefono zenbaki honetan jaso daiteke: 650 614 380.

Gripearen aurkako txertaketa

Urriaren 13tik hasiak dira jartzen gripearen aurkako txertoa, bereziki arrisku taldeei. Urriaren 31tik aurrera herritar orori. Aurrez hitzordua eskatu anbulatorioan: 943 362 013.

Berrogeialdian daudenentzat oharra

Udalak atez ateko sistema egokitu du Covid-19a izan edo berrogeialdian dauden etxeetarako. Kasu horietan, berebiziko garrantzia du Atez Ateko bulegora deitzeak: 900 776 776.

noaUA

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkarte@noaUA.eu ||| www.noaUA.eu
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroit S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaUA.eu

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaUA.eu



Gipuzkoako Foru Aldundia



Ugaitz Agirre Zapirain


Galtza motxetan, erromantizismoz beterik edota zahartzaroan sarturik, maitasunez beharrezko laztan beharrezko hiltzen direnen istorioa kontatu nahi dizuet, egunkariak eta albistegiak ez baitute tarterik aurkitzen bihotz bakartien klubeko bazkideei buruz hitz egiteko.

Tragedia hau metropolitarrak ez dute ikusten, baina zer tragedia ezkutuan gertatzen ari dena! Eta esperpentikoena izaki baztertu hauen bizi ibilkera bera da. Kontutuko dizuet bere identitatea itzal beltzaren atzean ezkutatatu nahi izan zuen baten esperientzia. Bere klabe izena: Mr. Gwyn.

Kaixomaitia, txat, tinder, sare sozial, ke seinale eta ausazko helbideetara bidalitako eskutitzek izan omen zuten bere jardunean erantzunik. Interesatu batek gonbita onartu zion, haragi beharrezko zela. Arazo bat parez-pare, ordea: bi herri ezberdinetan bizi ziren. Eta herri arteko giza trafikoa klase hori ez zuten agintariak onartzen. Berariaiek ase dezaketenez euren gosea, pribilegio hori dutenak izorra dadila, ezta?

Galdera moralek bere pentsamendua konkistatu zuten. Zilegi ote? Eta burutik kanpo? Burutik kanpo polizia eta

Laztan beharrezko direnena



“Kaixomaitia, txat, tinder, sare sozial, ke seinale eta ausazko helbideetara bidalitako eskutitzek izan omen zuten bere jardunean erantzunik”.

UGAITZ AGIRRE

“Interesatu batek gonbita onartu zion, haragi beharrezko zela. Arazo bat parez-pare, ordea: bi herri ezberdinetan bizi ziren”

unitate berezi guztiak zelatan zeuden errepide bazterretan hosto eta adarrak gorputzera itsatsita kameleoiarena egiten; teleskopioa herri mugetara apuntatuz, mendi puntetatik abisua pasatzeko zain noiz paperik gabeko bat igaroko. Eta luzerako badoa, operazio berezia prestatzen ari dira teknologia aurreratuenarekin egindako sateliteak aireratzeko.

Galderak eta kontrolak tarteko, abenturan murgiltzea erabaki zuen. Autoa hartu eta bere herriko mugak gainditzeko asmotan jarri zen bidean. Bolantearen gainean eskuak urduri,

hanka ezin geldirik eduki. “Pelikuletan legez kanpoko zer-bait egiten dutenean bezala, lasaitu eta ohiko zer-bait egiten ariko bazina bezala jokatu”, esanez bere buruari. Ehun metroa Ertzaintzaren kontrola. “Kaka!”

“Paperak”, ez egun on, ez mesedez. Etika horrela erakusten al dute Arkauten?

Mr. Gwynek merkatu beltzean eskuratutako faltsua pasa zion. “Beraz kopista zara. Eta zer egiten duzu zehatz mehatz?” “Ba interesatua nire tailerrera etortzen da, eta hainbat sesioaren ondoren, bere erretratu fidela egiten diot” “Ez duzu margolari itxurarik” “Ez, ez, erretratuak idatziz egiten ditut” Ertzainaren poema aurpegiari buruz hitzik ez esatea pentsatu zuen, eta hainbat datu kontrastatu ondoren, pasatzen utzi dio.

Iritsi da Mr. Gwyn intere-

satuarekin hitzartutako x lekura. Segurtasun distantzia noiz asaltatu zalantzan, aurrez aurreko aurkezpenak segurtasun tartearekin egin zituzten, batez ere fisikoaren eskaner azkar bat egiteko. Eta distantziak perspektiba aproposa eskaintzen zuen horretarako. Biak ados merkantziarekin. “Ekarri duzu?” “Kondoiak? Bai” “Ze kondoi eta ze hostia! Pezerrea diot, ekarri duzu?” Mr. Gwyn zuri-zuri geratu zen. “Osasuna denaren aurretik. Badakit go-goekin gaudela, baina pezerrekerik gabe nirekin jai duzu”. Osakidetzara deitu zuen segituan. Lineak okupatuta hasieran, pezerrearen froga egiteko itxaron zerrenda dagoela gero. “Aizu, eta larru beharra patologia bat izan al daiteke?” Administrariak deia moztu zion.

Telefonoa sakelan sartu eta neskari begiratu zion, zeina eskuak gurutzatuta aurkitzen zen. Pezerrekerik ezean, buelta erdia eman eta bere autoan sartu zen. “Negatibo ematen duzunean dei nazakezu”.

Mr. Gwyn sartu zen berean, etxera bidean ertzain bera. “Ondo erretratua?” “Ezagutzen duzu Behin batian Loiolan?” Eta etxean okela gosea ase zuen bitartean kantatuz kanpai jotze hau nahi dut eskaini maite ditugun emazteei une iheskorretan.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Komikia



Ordutegi eta ibilbide berria du Taxibusak

Covid-19aren eraginez Taxibus zerbitzua etenda geratu zen martxoan. Maiatzaren 25ean berriz jarri zuen martxan Usurbilgo Udalak, baina testuinguru “berri- ra” egokituta; ordura arte izan zuen ibilbide zehatzik gabe, eta 65 urtetik gorako herritarrei zuzendua soilik. Urrats berri bat eman du orain Udalak. Ordutegi finko berria estreina- tu eta ibilbidea hiru eremuetan banatu du. Ibilbide eta ordu- tegi berria ditu beraz Taxibus zerbitzuak.

“Erabiltzaileei zerbitzu era- ginkorragoa ematea da hel- burua: batetik bestera joateko denbora gutxiago beharko dute aurrerantzean”, iragarri dute Usurbilgo Udaletik. Covid-19 aurreko garaian bezala, aste- lehenetik ostiralera bost txan- datan eskainiko du zerbitzua Taxibusak. Orduotan hasiko dituzte txandok: 07:30ean, 10:30ean, 13:30ean, 15:30ean eta 19:00etan. 70 minutu be- randuago amaituko dituzte. Tarte horretan, beti Kaxkotik abiatu eta udalerrir erdigunera hirutan itzuliko da. Ez baita ahaztu behar, Behemendik eta Udalak sustaturiko egi- tasmoak, landa eremua herri kaxkoarekin lotzea, eta herri



Covid-19 aurreko garaian bezala, astelehenetik ostiralera bost txandatan eskainiko du zerbitzua Taxibusak.

TAXIBUS ZERBITZUA

“Taxibusak ibilbide bakoitza bost aldiz osatuko du egunero, astelehenetik ostiralera”

barruko mugikortasuna erraz- tea du helburu.

Hiru zonaldeetarako ibilbide bana

Usurbilgo Udalak usurbil.eus atarian argitaratu du Taxi- bus zerbitzuaren ordutegi eta ibilbide berri zehatza. Hiru eremuetan banatua dago; ere- mu bakoitza kolore ezberdinez margotua. Ibilbide berdean, Taxibus Kaxkotik abiatu eta Kalezar-Arratzain inguruko itzulia egingo du lehenbizi eta Kaxkora itzuliko da. Herri erdigunetik gero urdinez mar- goturiko ibilbidea osatuko du;

Aginaga, Txokoalde, Urdaiaga eta Santuenea zeharkatuko ditu eta berriz Kaxkora itzuli- ko da. Abiapuntu horretatik, hirugarren itzuli bat egingo du, horiz margoturikoa; kasu ho- netan Santuenea, Zubieta eta Txikierditik igaroko da.

Berrikuntza honek, herrita- rren mugikortasuna erraztuko du. Lehenago helduko da joan nahi duen gune zehatzera, eta lehen igaro behar zituen hain- bat zonalde ez ditu zeharkatu beharko.

Taxibusak ibilbide bakoitza bost aldiz osatuko du egunero, astelehenetik ostiralera. Go- goan izan, Udalaren ohar hau; “ohi bezala, adinagatik edo mugikortasun arazoak dituz- telako geltokira hurbildu ezin dutenek 630 64 35 96 telefo- nora deitu eta etxeko atarian jasoko ditu Taxibusak”.



Pelaioenea barnetik definitzen

Bi egitasmoren egoitza izan- go da Kalezar erdigunean kokatua egon eta Udalak birgaitua duen eraikina; Emakumeen Etxearena eta kalezartarrentzako udal eki- pamenduarena. Bat zein bes- tea definitzeko Elhuyarrek dinamizaturiko parte hartze prozesu bana abian du Uda- lak. Aurreikusitako datak be- tetzen badira, Emakumeen Etxeari lotutako hurrengo eskuhartze saioa azaroko le- hen astean izango da, biga- rrenean kalezartarrentzako auzo ekipamenduari lotu- takoa.

‘Guk Zubietan Zer’ prozesua, aste honetako hitzorduak

Zubietarrak etorkizuneko haien herriaz erabakitzen hasiak dira, “Guk Zubietan zer” prozesuaren baitan. Urriaren 8ko aurkezpena- ren ondotik, duela bi aste mugikortasuna eta inguru- mena hizpide zituen lehen mahai-inguru eta lan saioan hitza hartzeko aukera izan zuten zubietarrek. Aste ho- netarako saio gehiago daude iragarriak:

Gizartea eta ekonomia

- Azaroak 3: mahai ingurua.
- Azaroak 5: lan saioa.
- Saioen ordutegia eta le- kua: 18:30-20:00, Zubietako frontoia.
- Aurrez izen eman helbide honetan: hirigintza@usurbil.eus
- Sustatzaileak: Usurbil eta Donostiako Udalak, Zubie- tako Herri Batzarra, Eus- kal Herriko Unibertsitatea (EHU).

TAXI BUS ORDUTEGI BERRIA					
Usurbil kaxkoa	07:30	10:30	13:30	15:30	19:00
Kalezar	07:32	10:32	13:32	15:32	19:02
Iartza	07:35	10:35	13:35	15:35	19:05
Ibarrola	07:38	10:38	13:38	15:38	19:08
Arratzain	07:42	10:42	13:42	15:42	19:12
Txantxon	07:45	10:45	13:45	15:45	19:15
Zumitzaga	07:47	10:47	13:47	15:47	19:17
Usurbil kaxkoa	07:52	10:52	13:52	15:52	19:22
Aginaga	08:00	11:00	14:00	15:00	19:30
Txokoalde	08:03	11:03	14:03	15:03	19:33
Urdaiaga San Esteban	08:08	11:08	14:08	15:08	19:38
Santuenea	08:10	11:10	14:10	15:10	19:40
Atallu-tren geltokia	08:12	11:12	14:12	15:12	19:42
Usurbil kaxkoa	08:15	11:15	14:15	15:15	19:45
Atallu-tren geltokia	08:18	11:18	14:18	15:18	19:48
Santuenea	08:20	11:20	14:20	15:20	19:50
Amidi	08:22	11:22	14:22	15:22	19:52
Alkortaenea	08:24	11:24	14:24	15:24	19:55
Zubieta	08:30	11:30	14:30	15:30	20:00
Txikierdi	08:32	11:32	14:32	15:32	20:02
Usurbil kaxkoa	08:40	11:40	14:40	15:40	20:10

“Eskolak irekita jarraitzen du eta ez dugu positibo bat bera ere izan. Hori da garrantzitsuena”

Zubietako Eskola Txikiak irailean ireki zituen ateak urtero bezala, hilabeteetako ezinegon eta zalantza egoeren ostetik. Martxa hartu diote jada egoera berriari, baina oraindik ere zalantza egoera da. Iugatz Illaramendi eskolako zuzendariarekin izan da NOAUA! kurtso berriari eta iragandakoaren amaierari buruz hitz egiteko.

NOAUA! Kurtso hasiera guztiak gogorrrak izaten dira, baina aurten egoera gogorrago batek gatoz.

Iugatz Illaramendi: Egun batetik bestera konfinatu gintuzten. Goiz batean entzun genuen Urkulluk agerraldia egingo zuela eta eskolak itxiko zituztela. Berehala ikuskariari deika hasi ginen, baina hark ere ez zekien ezer. Gogoratzen naiz nola pantaila handian jarri genuen agerraldia irakasle guztiok bere aurrean bazkaltzen genuen bitartean. Berriak eman ostean ezustean harropatu gintuen itxierak, eta kaos moduko batean sartu ginen klaseekin aurrera nola jarrai-



Iugatz Illaramendi Zubietako Eskola Txikiako zuzendariarekin aritu gara solasean.

IUGATZ ILLARAMENDI

“Udaberriko itxierak ezustean harropatu gintuen. Kaos moduko batean sartu ginen, klaseekin aurrera nola jarraituko genuen jakin gabe”

tuko genuen jakin gabe. Eskola hau duela urte gutxira arte

LH2 mailara artekoa izan, eta gero urtez urte eskaintza zabaldu dugu. Orduan, baliabide teknologikoak ere ez genituen behar beste, moldatzen ari ginen oraindik maila berrietara. Eskola 2.0ko ordenagailuekin lan egiten da LHko azken mailetan, eta guk ordenagailuak jaso berri genituen; urtarilean hartu genituen eta pixkanaka

erabiltzen hasi berri geunden. Ordura arte ez geunden ohitura ordenagailuekin eta Internet bidez lan egitera. Emailak ireki genizkien LH3tik aurrerako ikasleei, eta behintzat bide hori bagenuen egoera berri horretan aurrera jarraitzeko. Txikiagoekin gurasoen domeinuen bidez ekin genion egoera berrira moldatzeari.

Konfinamenduaren hasiera “erabat kaotikoa izan zen”

NOAUA! Nola eman zenituzten klaseak hilabete haietan?

Iugatz Illaramendi: Egutero bidaltzen genizkien egun horretarako proposamenak. Kalkulua egiten genuen klasean emango zuten denbora hori etxean lanean pasa zezaten. Hala ere, familiei lagundu nahi genien; guraso asko etxetik ari ziren lanean eta baliabideak ere mugatuak dira askorentzat. Hasiera hori erabat kaotikoa izan zen, irakasleak egutero bat besteari deika gauetan hurrengo eguneko klaseak koordinatu nahian, irakasleak ere iritsi ezinean...

Zorte pixka batekin Aste Santua iritsi zen eta pare bat egun izan genituen deskantsatzeko eta konturatu ginen erritmo horrekin ezin genuela jarraitu. Inflexio puntu horretatik aste osoko plangintza egitera pasatu ginen eguneroko planteamentuaren bideragarritasun falta ikusita. Astelehen goizean aste osoko plangintza bidaltzen genien egun bakoitzeko proposamen bat hartuta. Gisa horretara umeren bat gaixorik bazegoen edota dena delako arrazoigatik egun horretarako lanak egin ezin bazituen hurrengo egunean

egiteko aukera izan zezan, eta nolabait familia bakoitzak bere egoerara molda zezan haurren ikasketa prozesua. Astean hiru Meet bilera egiten genituen, haurrekin hitz egin eta galdera edo zalantzak argitzeko. Askoz hobe funtzionatu genuen gisa horretara. Classroomarekin saiatu ginen zaharrenekin; plataforma horretan lanak eskegi eta bide horretatik eskola ahalik eta normalenak planteatuta, baina ez zuen funtzionatu. Orduan, aurten irailean bertan hasi gara Classroom eta Drive eta gisa horretako plataformak erabiltzen

momenturen batean bigarren itxialdi bat egongo balitz jada baliabide horiek behar bezala erabili ahal izateko. Txikienekin site batzuk egin genituen. Astero irakasleak ipuin bat kontatzen zuen eta grabatu egiten zuen, eta site horretan irakaslearen ipuinak zeuden. Proposamen berdina egiten genuen eskola guztiarentzat, gai bat jartzen genuen eta denek gai hori lantzen zuten, horrela inor ez zen zintzilik geratzen. Haurrek site horretan partekatzen zituzten etxean egindako ariketak.

“Denengana iritsi nahi genuen, eta behar bezala, baina ez zen batere erraza izan”

NOAUA! Arazorik izan zenuten horren planteamentu desberdina proposatuta?

Iugatz Illarramendi: Gure kezka nagusia familiek zituzten baliabideei lotuta zegoen. Beraz, behar zuten familia guztiei ordenagailu txikiak eman genizkien lanean jarraitzeko. Haur bakoitzak funtzionatzeko modu bat du, eta batzuek ordenagailuz oso ongi jarraitzen dituzte klaseak eta beste batzuek berriz paperean nahiago dute arreta ez galtzeko. Gu orokorrean ohituta gaude bakoitzaren beharretara moldatzen eta ez denei berdina ematen, orduan hor lan karga handia erori zen irakasleen gain. Pixkanaka bakoitzarentzat jarduera desberdinak hasi ginen bidaltzen haurren egoera emozionalaren arabera, eta oso nekatuta bukatu genuen ikasturtea. Denengana eta behar bezala iritsi nahi genuen, baina ez zen batere erraza izan koordinaketa aldetik ez erritmo aldetik.

Gogoz hartu zenuten itzulera, ezta?

Bai, iritsi zen momentu bat irrikitan geundena klaseetara itzultzeko. Beharrezko neurriak hartuta eta mila neurriekin, baina itzul gaitzean, hori genion beti, edonola, baina itzul gaitzean. Ekainaren hasieran irakasleok modu presentzian itzuli ginen eskolara, eta bilerak askoz ere produktiboagoak ziren. Internetetik asko luzatzen dira bilerak eta denek ezin dute beren iritzia eman eta oso zaila da modu horretan funtzionatzea. Itzuleran askoz ere errazagoa izan zen koordinatzea eta askoz modu ordenatuagoan prestatu genituen klaseak.

Kurtso hasiera nolakoa izan da?



Ikasturte hasiera “oso ona izan da. Haurrak oso pozik zeuden elkarrekin zeudelako berriz ere”.

IUGATZ ILLARRAMENDI

“Patioan bi talde egin behar izan ditugu, batetik HHkoak eta bestetik LHkoak”

Abuztuan kurtso berria prestatzen genbiltzan eta ezjakintasuna erabatekoa izan zen. Abuztuaren erdialdean ari ginen prestatzen itzulera jakin gabe zein izango ziren hartu beharreko neurriak, orduan oso urduri egon ginen garai hartan. Bakardade sentsazio handia geneukan zuzendaritza taldean eta sentitzen genuen guri ez zegozkigun erabakiak hartu behar genituela. Gu pedagogian eta irakaskuntzan gara adituak, ez osasungintzan. Antolatu genuen distantzien kontuari lotutako neurriak, gel hidroalkoholikoa erosi genuen, sarrerak eta irteerak antolatu genituen... dena antolatu genuen oso ongi jakin gabe zer egin behar genuen. Gure eskola oso txikia da, eta azken urteetan asko hazi da ikasle kopurua, bai eta irakasle kopurua ere. Edukiera aldetik izan genitzakeen arazoez oso

kontziente ginen eta horrek izugarritzko urduritasuna sortu zigun. Familiek askotan deitzen ziguten itzuleraz galdeztzeko eta guk geuk ere askotan ez genekien zer erantzun. Hala ere, hasiera oso ona izan da. Haurrak oso pozik zeuden elkarrekin zeudelako berriz ere, familiak ere askoz ere lasaiago, eta alde horretatik oso gustora. Dinamika aldetik aldaketak egin behar izan ditugu. Pedagogikoki oso ohituta geunden maila ezberdinetako ikasleak nahastu eta dinamika desberdinak planteatzen, baina orain ezin dugu horrela funtzionatu. Bideokonferentzia bitartez zaharrenek txikiagoei ikasitakoari buruzko azalpenak ematen dizkiete orain, lehen hori zuzenean egiten genuen espazio berean. Ez da berdina. Patioan ere bi talde egin behar izan ditugu, batetik HHkoak eta bestetik LHkoak, bi ordu desberdinetan. Patioa bera ere bi zatitan banatu dugu, eta arraroa da planteamentua. Baina tira, eskolak irekita jarraitzen du eta ez dugu positibo bat bera ere izan. Hori da garrantzitsua.

“Eskola guztiak ez gara berdinak”

NOAUA! Prest zaudete balizko itxialdi berri baterako?

Iugatz Illarramendi: Unitate didaktiko bat prestatuta dauka gu egoera hori emango balitz. Gelaren bat konfinatu beharoko bagenu ere, berdin. Guk daukagun arazo handiena da bizikidetzat taldeak gelaka antolatuta dauzkagula, baina jangelan ikasle horiek nahastu egiten dira, eta irakasleak ere bai. Gainera, leku bakarra da musikorik gabe daudena, orduan jangelako norbaitek positibo emanez gero zer? Hori da pixka bat daukagun kezka, eta Hezkuntza Sailarekin ere partekatu dugu hori. Ziur asko egoera horretan eskola itxi beharko genuke. Protokolo bera jarri dute eskola guztientzat, baina eskola guztiak ez gara berdinak, eta ezinezkoa da protokolo berera moldatzea. Guk eskatu dugu bereizketak egin eta salbuespenak markatzea, guk ezin baitugu jangelan protokoloa bete jarri dizkiguten baliabideekin.

Azaroko horoskopoa

Hitzak: Barretartia. Irudiak: Ainara Azpiazu Aduriz Axi.

Puntapaxeko sorginaren EROskopoa



ARIES

Aurten ez dugu izango ez Artisau ezta Erle azokarik ere, eta penatuta zabilta. Hileko aholkua: San Ferminetan esaten duten bezala: egun bat gutxiago geratzen da datorren urtekoa ospatzeko!



CANCER

Musukoak dagoeneko zure gorputzeko beste zati bat bihurtu dira, eta ia ez dituzu lotarako ere kentzen. Hileko aholkua: Zure irribarrea ikusi nahi dugu berriro!



LIBRA

Triste xamar zaude alarma egoeran gaudelako berriro. Pizgarri bat behar duzu hilabete honetan. Hileko aholkua: Zatoz NOAUA!ko Kulturaldira, bertan aurkituko duzu eta bizipoza!



CAPRICORNIUS

Garai zailak dira maitasunarentzat, baina zure azukre koxkorrekin egoteko ahal duzun guztia egingo duzu. Hileko aholkua: Hasi herrian zehar zirri-tokiak aurkitzen!



TAURUS

Ordu aldaketak zeharo nahastuta utzi zaitu eta dagoeneko ez dakizu goiz edo berandu zabilta. Hileko aholkua: Etxeko ordulari guztiak ongi errebisatu!



LEO

Sei pertsona baino gehiagoko bilerak ezin direla egin eta kezkatuta zaude, bazkari bat egin nahi duzulako lagunekin. Hileko aholkua: Baina ba al dituzu sei lagun?



SCORPIUS

Aurtengo urtebetetze ospakizuna alarma egoeran ospatuko duzu, beraz, baliatu ezazu zerbait berezia egiteko. Hileko aholkua: Badakizu behintzat goiz etxeratuko zarela...



AQUARIUS

Kontuz ibili beharko duzu datozen asteetan, dagoeneko dendetan turroiak eta polborioak atera baitituzte. Hileko aholkua: Produktu hauen ondotik pasatzen zarenean, jarri musukoa begietan.



GEMINI

Katarroa hartzeko aukera duzu eta lotsa pasako duzu publikoan ez tula egiten duzun bakoitzean, jendeak gaizki begiratzen dizulako. Hileko gomendioa: Eztula disimulatzeko puzkerra bota eta arazorik ez!




VIRGO

Euskaraldia datorrela eta ilusioz beteta zaude, ariketa duela bi urte baino finago egin nahi duzulako. Hileko aholkua: Ez, ezin duzu Aho-bizi eta Belarriprest bezala batera izena eman!



SAGITARIUS

Musukoaz kokoteraino zaude, baina erabili behar ez baduzu, beste segurtasun neurri batzuk hartzea komeniko zaizu. Hileko aholkua: Ezta okurritu ere gel hidroalkoholikoa edatea!



PISCIS

Tabernak eta terrazak zure gotorleku bilakatu dira, bertan sentitzen zarela ero-soen. Hileko aholkua: Noizean behin atera zaitez zure konfort gunetik!

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
600 024 825

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO
Kale Nagusia 10, 1.C4 RPS: 28/17 20170
Tlf 943 37 08 78 USURBIL

Patricia Iateixea
• bazkariak EGUNERO
• afariak. ostegunetik larunbatera
© 943 362725 • © 688 690 361

“Loreei entzuten jakin behar da”

Jakoba Errekondok liburu berri bat aurkeztu zuen aurreko astean: *Etxeko landareak* (Argia). Etxe barruko, kanpoko zein balkoiko landareak egoki zaintzeko gako ugari eskaintzen ditu, 91 landareri buruzko argibide zehatzak ematearekin batera.

Landare bakoitzaren jatorria eta bere klimaren ezaugarriak; zenbat eta nola ureztatu; zenbat argi eta zer tenperatura behar duen; nola ongarritu; zein dituen gaitz arruntenak eta nola aurre egin horiei; etxeko landare hori nola ugaltu; landare horiek zaintzeko trikimailuak... Argibideak ugari dira eta atalka datoz liburuan antolatuta.

Entziklopedia modukoa

Duela bost urte *Bizi Baratzea* (Argia) liburuak plazaratu zuen “eta arrakasta itzela izan zuen”, diote Argiakoeak. “Baratzearen entziklopedia modura



Jakoba Errekondok *Etxeko landareak* (Argia) izeneko liburuak plazaratu berri du. Argazkia: Dani Blanco, Argia.

JAKOBA ERREKONDO

“Landareak zaintzea arte bat da. Eta nabarmena da artista zein den. Balkoitara begiratzea besterik ez dago”

irakur daiteke”.

Etxeko landareak (Argia) liburuak ere entziklopedia kutsua du: kasu honetan etxeko,

balkoiko eta kanpoko loreei eskainia dago.

Lizardi, Laurok eta Alkartasun eskuragarri

Dagoeneko eskuratzeko moduan da Lizardi eta Laurok liburu dendetan, Alkartasuna Kooperatiban edota Argian (azken honetan, telefono bidez egin behar da eskaera, 943 36 11 14 zenbakira deituz).

Kontsultategi bat zabaldu dute Alkartasuna Kooperatiban

Jakoba Errekondok kontsultategia ireki du Usurbilgo Alkartasuna Kooperatiban. Aholkularitza jaso nahi duen orok hitzordua lotu behar du alde zurretik.

Kooperatibak berak sare sozialen bidez iragarri zuen albistea aurreko astean: “landareei buruzko aholkularitza partikularra” eskaintzen hasi direla eta Jakoba Errekondo arduratuko dela lan horretaz. “Baratzean, lorategian edo landareekin jardutea gustatzen zaizula badakigu, baina askotan hainbat zalantza sortzen zaizkizu, eta eskertuko zenuke norbaitek horiek argitzen laguntzea”.



Jakoba Errekondo arduratuko da Kooperatibako aholkularitza zerbitzuaz. Argazkia: Dani Blanco, Argia.

Hitzordua eskatu behar da

Aholkularitza zerbitzuaz baliatzeko, hitzordua lotu behar da alde zurretik. Koopera-

tibara deituz (943 36 11 14) edo email bidez alkartasuna@usurbil.com helbide elektronikora idatziz.



“Ilargia eta landareak” 2021eko agenda

osatu du Antton Olariagarekin batera

Etxeko landareak (Argia) liburuak argitaratzeaz gain, Jakoba Errekondok ilargian oinarritutako agenda osatu du. Antton Olariagarekin batera plazaratu du *Ilargiak eta landareak 2021eko agenda* izenburupean.

“Ilargiaren gorabeherak azaltzen dira bertan, eta ilargiaren arabera egun bakoitzean lurrean zer lan egin zehazten du: bai fruitu-arboletan, bai loretan, bai basoan eta bai baratzetan”, Argiatik aditzera eman dutenez.

Jakoba Errekondoren testuak eta Antton Olariagaren ilustrazioak topatuko dituzue agendan, eta beste urte batzuetakoekin alderatuta, diseinu berri batekin dator 2021ekoa. “Baratzerik ez duten herritarrek ere beren laneko eta bizitzako hitzordua idazteko leku gehiago izan dezaten” eguneratu dute agendaren diseinua. “Norberaren eguneroko bizitza ilargiaren eta lurraren aroekiko irekita bizi nahi duen ororentzat, gozagarri eta jakin-min asegarri dugu agenda hau”, Argiak ohartarazi duenez.

Euskaraldian izena emateko epeak zabalik jarraitzen du

Badator 2. Euskaraldia, azaroaren 20tik abenduaren 4ra euskara ahotan gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan hartzea sustatu nahi duen ariketa kolektiboa. Prestatzen hasteko garaia da jada.

Batetik entitate parte hartzaileak izango ditugu; erakunde nahiz lantoki, talde, elkarte edota herri eragileak. Ariguneen edo euskaraz lasai aritzeko guzueen bidez parte hartuko dute datorren Euskaraldian. Iraila amaieran itxi zuten haiei zuzenduriko izen ematea. Estreinako edizioan bezala, oraingoan ere norbanakoek parte hartuko dute; Ahobizi eta Belarriprest-ek.

Izena emateko epea zabalik da
Izena emateko epea zabalik dago azaroaren 19ra arte.

Belarriprest:

“Lekua, gaia edo egoeraren araberak erabakitzen dut euskaraz



Orbeldi Dantza Taldean ere ariguneak osatu dituzte. Bestetik, Ahobizi eta Belarriprest gisa izena emateko epea azaroaren 19ra arte egongo da zabalik.

EUSKARALDIA

“Lehen edizioko txapa jasoa baduzu hura berrerabil dezakezu, bestela herri batzordearen mahaian eskatu”

noiz eta norekin egin. Agian, ez dut beti euskaraz egingo ulertzen duten guztiekin, baina euskara dakitenek niri uneoro euskaraz hitz egitea nahi dut;

eta horixe eskatzen diet modu esplizituan”.

Ahobizi:

“Ulertzen duten guztiekin euskaraz egiten dut uneoro. Kideek euskaraz ulertzen ote duten ez dakidanean lehen hitzak, beti, euskaraz egiten ditut; euskaraz ulertzen badute, euskaraz jarraitzen dut. Batzuetan zaila den arren, elkarrizketa elebidunetan ere euskarari eusten diot kideek ulertzen dutenean”.

Ipuinak pandemia garaian

Ixabel Agirresarobek ipuin kontaketa saio bana eskaini zuen astearte eta ostegunetan. Lehena lau-bost urteko haurrentzat eta bigarrena sei urtetik gorakoentzat. Normalean liburutegian bertan egin ohi dituzte ipuin kontaketak, baina edukiera kontuak direla eta, Sutegiko auditorioan egin dituzte azken saioak.



Barre txikiak, algara ozenagoak eta harridura aurpegiak ez ziren falta izan.

Izen-emate eta txapa banaketa mahaia

2. Euskaraldia erakartzen ari den parte hartzearen adierazle argiak diren zenbait datu segidan; 421 udalderri eta 6.737 entitateek bat egin dute ekimenarekin Euskal Herri osoan. Entitateok 8.174 egoitza dituzte eta 25.091 arigune sortzeko prozesua abiarazi dute. Norbanakoei dagokienean, jada ia 70.000 herritarrek ere Ahobizi nahiz Belarriprest gisa parte hartzeko inskribatu dira.

Usurbilen Euskaraldia bideratzeko hilabeteak lanean daramatzen herri batzordea mahaia jartzera doa egunotan gune desberdinetan. Bi helbururekin; batetik, ekimenean izen emateko aukera egongo da eta era berean, txapa ere aldi berean jaso ahalko da. Lehen edizioko txapa jasoa baduzu hura berrerabil dezakezu datorren edizioan, bestela herri batzordearen mahaian eskatu, egun, toki eta orduotan:

Azaroak 5, osteguna

17:30-18:30 Zubieta.

18:00-19:00 Kaxkoa.

Azaroak 6, ostirala

19:00-20:00 Santuenea.

Azaroak 8, igandea

18:30-19:30 Kaxkoan.

Izen ematea eta informazioa:

QR kodearen bidez
izenematea.euskaraldia.eus
usurbil.euskaraldia.eus

Uraltz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraltz@uraltz.com USURBIL

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak

649 43 54 75
943 36 72 64

IT-ak
egiten dira

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Errigorako saskiak eskatzeko garaia da

Ager vasconum deiturikoan kokatzen da Agerraldia: Garestik Kortesera eta Zangozatik Viannara. “Ikastolek, AEK-k eta Sortzen-ek Agerrean dituzten proiektuak ezinbesteko ditugu euskaldun berriak sortzeko”, diote Errigorako sustatzaileek. Horregatik, saskiak erosiz zonaldean euskara indartzen lagunduko dugu.

Errigorak hiru saski prestatu ditu aukeran. Prezioan ere bada alderik. Garestixeago dira aurrean. Erabaki horren atzetean bada arrazoi sendo bat. Covid-19a tarteko, “ez dira garai onenak Herri Urratsak, Korrikak edo Sortzenen jaiak ospatzeko, baina izan bitez oparoenak elkartasunari ekiteko”. Prezioaren zati bat hiru entitate horientzat izango dela, alegia.



Hiru saski daude aukeran: Berdea (65 euro), beltza (55 euro) eta zuria (75 euro). Eskaerak egiteko epea azaroaren 12an amaituko da.

Saski motak:

■ **Saski beltza (betikoa):** orburuak, pikillo marmelada, pikillo piperrak, zainzuri zuriak, teilak, tomate frijitua, mertxika almibarretan, oli-ba-olio birjina estra, kardua, mahats-zukua, botila ardoa, potxak eta piper-mamia. Baita Korrikaren katilua ere. Prezioa: 55 euro.

■ **Saski berdea (ekologikoa):** txitxirioak, ardo-ozpina, oli-ba-olio birjina estra, baraz-



ki-menestra, pasta, orburuak, pikillo piperrak, arroza, zainzuri zuriak, botila ardoa, udare-zukua. Baita Seaskaren egutegia ere. Prezioa: 65 euro.

■ **Saski zuria (berezia):** orburuak, pikillo piperrak, zainzuri zuriak, botila krian-tza, txokolatzeko zigarretak, patxaran-pastak, patxarana, oli-ba-olio birjina estra, ardo zuri apartsua, arbendol-pol-



boroiak. Baita D ereduaren haziak ere. Prezioa: 75 euro.

Nola eskuratu?

■ Epea: Azaroaren 12ra arte.

■ Eskabideak non: errigora.eus ataritik edota NOAUA! Kultur Elkartearen egoitzan.

■ Produktuen banaketa: azaroaren 26an eta 27an, 9:00-14:00 artean NOAUA! Kultur Elkartearen egoitzan.

■ Informazioa: errigora.eus

ikusgaitzak

Ezin dira euren familian hazi, eta harrera-familia baten beharra dute. Eta ikusten ez duguna existitzen ez denez, aurpegi eta begiak jartzea erabaki dugu. Lagundu gaitzazu 60 harrera-familia aurkitzen.

gipuzkoa.eus
Erakutsi dezagun Gipuzkoaren aurpegiarik onena.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

“Gaztelekua leku espontaneo da, eta gazteak ordutegi jakinik gabe etortzera ohituta daude”

Gaztetxoengana zuzendutako zerbitzuak eta ekintzak martxan dira jada Usurbilen. Horien artean, Gaztelekua. Aurten neurri bereziak hartu behar izan dituzte egoerak hala eskatuta, baina ahalik eta modu aproposenean jarraituko dute urteroko helburuak betetzen.

NOAUA! Ikasturte berriari ekin berri diozue. Nola izan dira azken egunok?

Saioa Aginako: Duela bi aste ekin genion ikasturte berriari. Irailean irekiera prestatzen aritu gara, protokoloak zehazten eta orokorrean udalarekin komunikazio zuzenean. Bi protokolo prestatu ditugu; bata Gaztelekuko jarduerak finkatzeko eta bestea Covid-19aren testuingurura egokitzeke.

Zeintzuk dira protokolo horiek?

Gazteei jarri diegun eguneroko zeregina da eskuak gel hidro-



Gaztelekuan duela aste batzuk ekin zioten ikasturte berriari.

SAIOA AGINAKO

“Bi protokolo prestatu ditugu; bata Gaztelekuko jarduerak finkatzeko eta bestea Covid-19aren testuingurura egokitzeke”

alkoholikoarekin garbitzea. Hortik aurrerako guztia gure lana da. Leihoak eta ateak ire-

kita mantentzea, zabor ontziak ere estali gabe izatea, eta geuk ere gel hidroalkoholikoa ematea, horiek dira Gaztelekuko langileon lanak. Beste protokoloari dagokionez, gurasoekin partekatu dugu Gaztelekuan daudela gazteren batek sukarra edo ondoeza badu zer egin. Dokumentu idatzi bat bidali genien protokoloen jakinaren

gainean egon zitezten, eta sinadura ere eskatu genien ados zeudela baieztatzeke.

Edukiera aldetik ere, nahi beste gazte ezingo dituzue hartu, ezta?

Gehienez, 16 pertsona egon daitezke Gazteleku barruan. Ez dakigu oraindik nola kudeatu egoera. Izen ematea egitea pentsatu genuen, baina gazteak ez daude ados horrekin. Azken finean, Gaztelekua leku espontaneo da, eta gazteak noiznahi eta ordutegi eta denbora jakinik gabe etortzera ohituta daude. Gazteek ez dakite Gaztelekura etorri nahi duten, eguna iristen denean agian ez dute gogorik edo ordu horretan beste zereginen bat dute. Ikastolako ordutegia ere aldatu egin da, eta beraz, arratsaldeak planteatzeko modua ere aldatu egin da. Egunerokotasuna aldatu egin zaie, eta horrek, ezinbestean eragiten du Gaztelekuan ere.

“Gazte askok barruan egon nahi izaten dute”

NOAUA! Antolaketa horren harira, zein da momentuan hartuta daukazuen erabakia?

Saioa Aginako: Momentuz aforoa dela eta, maila bakoitzari egun bat eskaini diogu eta lehenengo iristen diren hogeiak hartuko ditugu. Bilerak egin ditugu eta egiten jarraituko dugu datozen asteetan, aurrerantzean nola funtzionatu erabakitzeko. Hiru pertsona daude praktikak egiten Gaztelekuan, eta lau hezitzaile egoten gara orotara. Espazioa kanpora eramatea ere pentsatu dugu jende gehiagori zerbitzua eskaintzeko, baina orain

hotza eta euria egiten hasi duenez, zail izango dugu hori ere. Bestalde, gazte askok barruan egon nahi izaten dute.

Maila bakoitzari zein egun dagokio?

Astelehen, ostegun eta larunbatetan irekitzen ditu ateak Gaztelekuak; eguneko hiru orduz. Astelehenetan zaharrenak hartuko ditugu, DBH3, DBH4 eta batxillerreko ikasleak. Kontua da maila horietan DBH3koak baino ez direla agertzen. Beraz, printzipioz horientzat izango da asteleheneko saioa. Ostegunak DBH2koentzat

dira, eta larunbatak DBH1ekoentzat. Orokorrean larunbata izaten da gazteen egunik gustukoena, eta gehiago etorri ohi dira. Horregatik, txandaren bat gehiago egitea pentsatzen ari gara DBH2 eta DBH3koek ere larunbatetan aukera izan dezaten Gaztelekuaz gozatzeko. Azarotik aurrera izango litzateke hori, hilabete honetan DBH1eko gazteak ezagutu nahi ditugu eta. Txanda bakoitzean, eguneko hiru ordu horiek bi zatitan banatzen ditugu. Hasieran Gaztelekuak proposatutako dinamikak lantzen ditugu, eta gero, azken ordu eta

erdia libre izaten dute nahi dutena egiteko.

Baldintza gehiago jarri dituzue?

Ez dugu kontua gehiago mugatu nahi. Hau gazteentzako lekua da, eta arau gehiegi jartzen baditugu inor ere ez da etorriko. Segurtasun neurriak dira jarri ditugunak, baina hortik kanpo ez dugu ezer gehiago mugatu nahi. Neguko oportetean ere badugu asmoa ekintzak egiteko, baina denborarekin ikusi behar dugu zer egin daitekeen eta zer ez.

“Behin irekita, segituan hasi zen jendea mugitzen”

NOAUA! Itxialdiaren osteko uneak nola gogoratzen dituzu? Lourdes Larrañaga Estetika Zentroa: Nahiko gogorra egin zitzaidan. Ez nekien oso ongi zer espero, ez nola joango zen kontua eta beldur pixka batekin ekin nion. Behin hasita konturatu nintzen egoera ez zela horren konplikatu ere, eta neurri batzuk hartuta “normaltasunez” jarrai nezakeela lanean eta segituan ohitu nintzen martxa berrira.



Konfinamendua amaitu zenean, “jendearen erantzuna oso positiboa izan zen”. Argazkia: Ion Markel Saez de Urabain, Gertuago.

Jendea hasieratik etortzeko prest egon zen edo kostatzen zitzaien egoerari buelta ematen?

Jendearen erantzuna oso positiboa izan zen. Etxera deitzen zidaten batzuetan noiz ireki behar nuen galdetzeko, eta orokorrean zain zeuden. Beraz, behin irekita segituan hasi zen jendea mugitzen. Hi-

LOURDES LARRAÑAGA

“Osasun neurriak jarraituta dena normaltasunera itzuli da. Ez daukat kexatzeko arrazoirik”

labeetan tratamendurik egin gabe zegoen jendea eta bazuen gogoia berriz ere zaintzen hasiteko.

Zein neurri ari zarete hartzen birusaren aurka?

Orokorrean hartu behar diren neurriak ari gara hartzen gu ere. Gel hidroalkoholikoak daukat sarreran, musukoa derrigorra da eta bezero bakoitzaren ostean lekua desinfektatu egiten dut.

Gertuagoko kanpainak zer mo-

duz funtzionatu du zurean?

Orokorrean bezeroak pozik daude, baina batzuk ez dituzte bonuak erosi nahi. Gazteen artean izan dute arrakasta handiena. Adinekoek ez dute horren ongi hartu, agian Interneta ez daukatelako edo ez direlako ongi moldatzen. Ni ere hasieran pozik ibili nintzen bonuekin, erosketa bat zegoen bakoitzean mezua bidaltzen zidaten eta antolaketa aldetik oso txukun ibili ginen. Behin uda pasata, norbaitek erosketa egitean ez zait mezurik iristen eta bezeroa iritsi arte ez dut jakiten erosketa hori egin denik, eta kontu korrontean sartzean ikusten dut dirua sartu didatela. Orduan, orain pixka bat zailagoa da niretzat dena finkatuta eramatea. Badakit nire arazo berak izan dituztela beste gutxi batzuk ere, ez da denen arazoa, baina bai gutxi batzuenak.

“Betiko martxan gabiltza urte sasoi honetarako”

NOAUA! Konfinamenduan ile-apaindegi guztiak itxita egon ziren, eta beraz, zuena ere bai. Nolako izan zen itzulerara?

N.I. ILE-APAINDEGIA: Martxoaren erdialdean jaso genuen itxeko abisua, konfinamendua hasi baino egun bat lehenago. Jakina, datozen asteetarako eta apirilera ere jendeak ordua hartuta zeukan ilea moztu eta tratamenduak egiteko. Horiek guztiak bertan behera geratu ziren, eta gero, maiatzean itzuli ginen berrira lanera. Urduri geunden jendeak nolako erantzuna izango zuen jakiterik ez dagoelako, baina azkenean dena ongi joan zen eta segituan hartu genuen martxa berriz.

Zein neurri hartu behar izan dituzue aurrera jarraitu ahal izateko?



“Maiatzean itzuli ginen berrira lanera eta segituan hartu genuen betiko martxa”. Argazkia: Ion Markel Saez de Urabain, Gertuago.

N.I. ILE-APAINDEGIA

“Bezeroei asko gustatu zaie Gertuago ekimena. Lehenengo egunetan bonu guztiak saldu ziren, eta oso pozik gaude”

Neurri batzuk hartu behar izan genituen bai. Leku guz-

tietan bezala maskararen erabilera derrigorrezkoa da, eta sarreran gel hidroalkoholikoak jarri dugu bakoitzak bere burua babesteko.

Horrez gain, aulkiak forratu egin ditugu, lurra produktu berezi batekin garbitzen dugu beti eta toallak ere bai. Hasieran plastikoa erabiltzen hasi

ginen eta erabilpen bakarra ematen toallei, baina azkenean toalla normalekin jarraitzea erabaki dugu. Garbigailuan produktu berezi bat gehitzen diegu toallei, eta lixiba ere erabiltzen dugu zenbaitetan birusik izanez gero hil dadin, eta toallak berrebiltzen jarraitzeko.

Konfinamendua amaitu zenean, nola erantzun zuen jendeak?

Jendeak hasieratik oso ongi erantzun zuen eta uda aurreko eta udako hilabeteak normaltasun osoz joan ziren. Orain ere erritmo normalean ari gara lanean, nolabait betiko martxan gabiltza urte sasoi honetarako. Desberdintasun bakarra da ordu gutxiago ari garela eskaintzen, baina gainontzekoan beti bezala gabiltza.

Langile eta langabetuentzat doako ikastaroak eskainiko ditu Usurbilgo Lanbide Eskolak

Lanbidek emandako diru-laguntzak baliatuz, Usurbilgo Lanbide Eskolak hainbat ikastaro eskainiko ditu azaroaren 30etik aurrera. Ikastaro hauei buruzko informazioa www.lhusurbil.eus web orrialdean jaso daiteke.

Lanbide Eskolak aditzera eman duenez, arlo ezberdinetako ikastaroak eskainiko dituzte. “Fabrikazio Mekanikoan, adibidez, CNC programazioa (Fanuc, Gibbs, Fresa Heidenhain), metrologia edota CAM ikastaroak emango dira. Administrazioa eta Kudeaketa arloan, besteak beste, Komunikazioa, Artxiboen kudeaketa edota Bulegotika ikasteko aukera”.

Elektrizitateari lotutako ikastaroak ere eskainiko dituzte: “Oinarriko Elektrizitatea, Hidraulika eta IOT eskainiko dira. Instalazio eta Mantenua arloan berriz, hainbat ikastaro egiteko



Izen-ematea zabalik da. Ikastaroak azaroaren 30etik aurrera eskainiko dituzte. Argazkia: Lanbide Eskola.

LANBIDE ESKOLA

“Ostalaritza arloko formazioa eskainiko da ikasturte honetan”

aukera egongo da: Igogailuen instalazioa, Igogailuen mantenua, Soldadura, Instalazio Termikoen diseinua eta abar”.

Ostalaritza arloa lantzen

Ostalaritza arloko formazioa ere emango dute ikasturte honetan. “Ostalaritza-sukaldaritza enpresetan bezeroaren arreta ikastaroa egiteko aukera egongo da azaroaren 30etik aurrera. Etorkizunean ere, Ostalaritza arloko formazioa eskaintza indartu nahi du Usurbilgo Lanbide Eskolak”.

Izen ematea eta informazioa

Ikastaro hauei buruzko informazioa www.lhusurbil.eus webgunean jaso daiteke. “Izena emateko edo zalantzaren bat argitu nahi izanez gero, 943 364600 (luzapena: 78) telefonora deitu edo ursos@lhusurbil.eus helbidera idatzi daiteke”, Lanbide Eskolatik aditzera eman dutenez.

Pobrezia ezabatzeko konpromiso irmoa

Urriaren 17ko pobrezia desagerrarazteko nazioarteko egunari lotutako mozioa aurkeztu arren, EAJ-ren eskariz mahai gainean uztea erabaki zuten iraila amaierako udalbatzarrean, gaia landu eta aurrerago erabateko adostasunarekin onartua izan zedin.

Urriaren 29ko udalbatzarrean eraman zuten aho batez onartu zuten testua. “Pobrezia ezabatzeko konpromiso irmoa

adierazten dugu”, dio mozioak. Eta horretarako beharrezko neurri ekonomiko, sozialak eta fiskalak hartzeko, besteak beste, “Gizarte-Larrialdietarako laguntzak funts propioekin osatzen jarraituko dugu”.

Are gehiago orain, “Covid-19ak gure komunitatearen zaugarritasun soziala eta pobrezia egoerak larriagotu egin ditu eta, horregatik, erakunde publiko guztien lehenasun-

nezko jarduera izan behar du ezinbestean”. Mozioak ezinbestekotzat jotzen du “erakunde guztiak politika publikoak indartzeko konpromisoa hartzea, enplegua, ekonomiaren errekuperazioa eta gizarte politikak herriaren berreraikitze sozial eta ekonomikoaren aldaketarako palankak bilakatuz”. Eusko Jaurlaritzari premiazko neurriak hartzea eskatzen dio “gure babes-sistema covid19-aren kri-

siaren ondoriozko beharretara egokitzeko”. Horrekin batera, “gizartean pertsonen erabateko integrazioa lortzeko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zentraltasuna aldarrikatzen dugu. Horregatik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuak gartzeko eta indartzeko konpromisoa hartzen dugu, eta konpromiso honi atxikitzeko eskatzen diegu gainerako erakundeei”.

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI
650 31 31 91 USURBIL

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfn. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax. 943300045

Herri bizitzari elkarlanean eusteko apustu irmoa

Elkarlanaren aldeko apustua berresten duen talde argazkia duzue ondoko. Iragan astean Udarregi Ikastolan udal eta herri eragileetako ordezkariak eginiko bileran ateratakoa. Covid-19aren “bigarren olatu” betean alarma-egoera ezarri eta hainbat murrizketa martxan dauden honetan, ohiko prebentzio neurriak hartuta herri bizitzari elkarlanean eusteko apustua egin dute irudiko protagonistek; Usurbilgo herri ordezkari-tza zabal batek.

Ia bi aste daramagu alarma-egoeran, eremu gorrian, hainbat neurri murriztaileren (etxeratze-agindua, herritik ezin atera, 6 laguneko bilkurak...) eraginpean. Testuinguru zail honetan, martxoko “lehen olatuan” gertatu zena ez dute errepikatzerik nahi, albiste honi atxikia duzuen argazkiko protagonistek; aurreko astean, Udarregi Ikastolan egindako herri bileran parte



Ohiko prebentzio neurriak hartuta herri bizitzari elkarlanean eusteko apustua egin dute irudiko protagonistek.

HERRI ERAGILEEN BILKURA

“Herri bizitzari eusteko apustuaz hitz egiten aritu ziren Udarregi Ikastolan egin zuten bileran”

hartu zuten udal eta eragileetako ordezkariak. Orduko hartan egun batetik bestera herri bizitza zeharo etenda geratu zen; ekitaldiak bertan behera, oinarrizkoena saltzen zuten establezimenduak salbu, gai-

nerakoak itxita...

Oraingoan ez lukete berriz halakorik gertatzerik nahi; elkarlanean, beharrezko prebentzio neurriak hartuta, herri bizitzari eutsi nahi diote Covid-19aren “bigarren olatu” betean gauden honetan. Horretarako lanabesa badute; elkarlana. Bizi dugun osasun krisialdiaren uneaz eta horretaz, testuinguru zail honetan herri bizitzari eusteko apustuaz hitz egiten aritu ziren Udarregi

Ikastolako aipatu bileran. Udal gobernu taldetik eragileei eskerrak helarazi nahi izan zizkieten, ekitaldiak antolatzeko egiten ari diren ahaleginagatik. Egoera aldrebes honi herri gisa erantzuteko beharra azpimarratu zuten, “komunitate bakar gisa... lan filosofia eta ikuspegi berarekin aritzeko beharra”.

Prebentzio neurriak hartuta

Hilabeteon ildotik segitzeko asmo argia adostu dute; beharrezko segurtasun eta prebentzio neurriak hartuta, Usurbilgo herriari neurri berrietara egokitutako eskaintza plazaratzeko asmoa berretsi dute. Iragan astetik indarrean diren neurri murriztailer berriekin ere halaxe gertatu da; kasu batzuetan ordutegia egokitu behar izan dute datozen hainbat ekitaldietan, besteetan (hainbat ikastaro, entrenamenduen kasuan) berrantolatu behar izan dituzte. Udalak egunotan plazaratu duen kultur agendan jasoko dituzue xehetasunak.

Merkatari eta ostalarien inbertsioetarako udal diru-laguntza berezia martxan

Horrekin batera, sektoreko ordezkariekin ere bildu zen Udala egun berean. Haien beharrak entzun eta laguntzeko prestasuna adierazi die Usurbilgo ostalari eta merkatariei.

Covid-19aren eraginez Usurbilgo tokiko merkataritza eta ostalaritza gunetako langileek establezimenduetan egin behar izan dituzten inbertsioak diruz laguntzeko lerro berezi bat ere jarri du martxan Udalak.

Urriaren 16an Usurbilgo Udalak Tokiko Gobernu Ba-

tzarrak Covid-19ak kolpatutako Usurbilgo merkataritza eta ostalaritza sektoreak lagundu eta indarberritzeko “jarduera ekonomikoa prestatzera bideratutako inbertsioak diruz laguntzeko oinarriak onartzea erabaki zuen”. Hala dio, Udalak urriaren 27ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuen iragarkiak. Interesdunak eskabideak aurkezteko aukera izango dute azaroaren 20ra arte. Eskabideak telematikoki bideratzea aholkatzen du Usurbilgo Udalak: usurbil.eus atari-

ko diru-laguntzen atalean edo 943 371 951 telefono zenbakian hitzordua aurrez eskatuta.

28.006 euroko dirulaguntza

Laguntza hau Covid-19ari aurre egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatua da. Usurbilgo Udalak guztira 28.006 euroko dirulaguntza jaso du. “Laguntza hauen xedea da, Covid-19ak eragindako egoera berrira egokitzeko Usurbilgo merkataritza eta ostalaritza establezimenduen egin beharreko inbertsioak, ekipamenduak jartzea

eta/edo inbertsio horiek egiteko ikerketak diruz laguntzea. Dirulaguntzen xedea da tokiko jarduera sustatu nahiz suspertzea eta, bide batez, sektoreen jarduera ekonomikoa, enplegua eta lehiakortasuna mantentzea, Covid-19 edo koronabirusaren krisiak eragindako ondorioei aurre egin ahal izateko”. Udalak ohartarazi duenez, “diruz lagun daitekeen gastua, lehenengo banaketan, gehienez ere, 2.500 eurokoa izango da establezimendu bakoitzeko”.

Gure Eskuren “Altxa” ikuskizuna eskaini zuten Potxoenean

Urteak daramatza Gure Esku Dagok erabakitzearen aldeko ekitaldi jendetsuak antolatzen. “Altxa” ikuskizuna da sortu berri duten ekimen berriaren izena, garai hauetarako egokitutako formatuarekin gainera, ikus-entzunezko proiektzio bidez.

Arratsaldeko seiretan hasi zen proiektzioa Potxoenean, dozena bat herritarren aurrean. Nazio mailako ekitaldi politikoa eta “Altxa!” izeneko kultur ikuskizuna eskaini zituzten, aski ezagunak diren Erika Olaizola, Iraia Elias eta Laura Penagos aktoreek, Amets Arzallus bertsolariak, eta Eñaut Elorrieta eta Dupla taldeko musikarien parte hartzearekin. Proiektzio antzetzua, musikatua eta bertsoz lagundua da “Altxa”, erabakitzeko eskubidearen alde hausnarke-ta bultzatzea helburu duena. Amancay Gaztañaga da zuzendaria eta Gotzon Barandiaran gidoilaria.

Ez Usurbilen bakarrik, Euskal Herriko beste hainbat txokotan ere jarri zuten proiektzioa. Etxe-



Etxetik atera ezin zuten horiek ere Internet bidez jarraitu ahal izan zuten ikuskizuna.

GURE ESKU

Sinadura bilketa masiboa egiteko atari digital bat osatu dute: hamaikagara.eus

tik atera ezin zuten horiek ere Internet bidez jarraitu ahal izan zuten ikuskizuna.

Proiektzioa sortu berri duten plataforma handiago baten isla da, hamaikagara.eus atariarena, hain zuzen. Sinadura bilketa masiboa egiteko sortu duten atari digitalaren bidez, Eusko Jaurlearitza eta Nafarroako Parlamentuari eskaera luzatu nahi diote etorkizun po-

litikoaren inguruko eztabaida sustatzeko, herritarren parte hartze eraginkorra bermatu, eta erreferendumak egiteko ahalmena bere gain har dezan, bai eta arautu eta garatu ere. Ipar Euskal Herrian ere norabide berean lan egiteko borondatea adierazi du Gure Esku Dagok, instituzionalizazioan sakonduta.

Sinadura bilketa

Aipatutako hamaikagara.eus atarian sina daiteke proposamena. EAEn, Nafarroan, Ipar Euskal Herrian edo diasporan bizi den edonork sina dezake modu elektronikokoan klik pare baten bidez.

Lorez apaindua, baina bisitari gutxi

Beste urteetan, azaroaren lehenean jendez betea egon edo etengabeko joan etorriak biziko zituen hilerria hutsik aurtengoan. Lore-sortaz apaindua bai baina primerako eguraldia zen arren, bisitari gutxi. Usurbilgo Udalak plazaraturiko aholkuei jarraiki, aurreko egunetan bisitak egingo zituen batek baino gehiagok. Izango zen baita bertaratzeko modurik ez zuenik, edota prebentzio gisara, Covid-19aren eraginez aurtentean joateari utzi dionik ere bai. Lore saltzaileak izan dira neurri



Udalak plazaraturiko aholkuei jarraiki, batek baino gehiagok aurreratu egin zuten bisita eguna. Ez zen jende pilaketarik izan azaroaren lehenean.

batean loreak eramateaz arduratu direnak aurtentean. Bizi dugun osasun krisialdiak eragindako ezohiko beste irudi bat.

Lan eskaintza

Udarregi Ikastolan

Aldi baterako ordezkapen bat betetzeko langile bat kontratatu nahi du Udarregi Ikastolak. Sare sozialen bidez berri eman duenez, “Ikastolak DBHn musika arloko aldi baterako ordezkapena betetzeko irakasle bat behar du”. Interesdunek goi-mailako musika titulua eta gaitasun pedagogikoko agiria aurkeztu behar dituzte. “Zatoz, Udarregi Ikastolako komunitatera!”, animatu dute Ikastolatik.

Udazkena bizi, liburutegian

Azaroak 11, asteazkena

■ 19:00 Harkaitz Canok idatzitako “Enseres de ortopedia inútil” kontakizun laburren liburuari buruzko solasaldia Sutegiko auditorioan, idazlea bertan dela eta Ana Merino herritarrak gidatuta.
■ Sarrera-kopurua: mugatua.
■ Izen ematea: aurrez liburutegian (943 360692).

Azaroak 17, asteartea

■ 18:00 Ibon Martin, “Onin” sailaren idazlearekin solasaldia Sutegiko auditorioan.
■ Nori zuzendua: 8 urtetik gorako haurrentzat.
■ Sarrerak: doan usurbilkultura.eus atarian eskuragarri, azaroaren 15era arte.
■ Edukiera: 78 pertsona.
Antolatzailea: Sutegi udal liburutegia.

Gozogintza tailerra

Santuenea Kultur Elkarteak antolatuta azaroaren 13an eta 20an 18:00etan auzo elkartearen plaza ondoko egoitzan. Izen ematea aurrez bideratu behar da doan, azaroaren 6ra arte telefono zenbakio-tako batean: 619 791 170 / 670 037 731.

ETXEBIZITZA**Salgai**

91m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukalde, 2 komun, egongela. 11m² terraza, 8m² trastelekua, 24m² garajea erosteko aukera. 678949958.

Munalurra 16, 5ªA pisu bat salgai. 3 logela, 70 metro². Igogailua egitea onartuta dago eta berehala egingo da. 130.000 euro. Interesatuak deitu: 617972350.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukalde, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Alokairuan

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

Usurbilen, kaxkoan eta inguruan pisu bat alokatu nahiko nuke. Txakurra daukat. Hilaren 1ean ordaintzeko konpromisoa. 661115222.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Nissan Note 1600 gasolina kotxea daukat salgai, GRD matrikuladuna. 634416863

Volkswagen "escarabajo" bat saltzen dugu. Kotxe klasikoa baina oso egoera onean dago. 656704299.

Santuenea auzoan trastero txiki

baten bila nabil. 626 735 354

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxia. Prezioa negoziagarria. 667336405.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CVinfo@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiribogan asteburuetarako lan-gileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegian. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

24 urteko neska gaztea. Arratsaldez umeak zaintzeko eskeintzen da. 695617001

Emakume usurbildarra naiz eta lan bila nabil, umeak zaintzeko edo etxekolanak egiteko. 627184674.

Ingeleseko irakaslea naiz baina bestelako lanak egiteko ere prest dagoen emakumea naiz. Etxeko

lanak, umeen zaintza edo heldue-na. 631746521.

Pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. Interesatuak deitu: 631 489 128.

Asteleheneetik ostiralera orduka, pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 631157290.

Pertsona helduak zaintzeko gizonetara eskaintzen da. Lanaldi osorako edo orduka lan egiteko prest... Esperientzia eta erreferentziak ditut 603595656.

Udan umeen zaintzaile lanetan edo klase partikularrak emateko prest nago Usurbilen. 648059422

Saio partikularrak emateko es-

kaintzen naiz (edozein adinetako haurrei). Irakasle titulua dut eta iaz Ikastolan jardun nintzen klasea ematen. Ingelese ere eman ditzaket saioak. 662127029.

Ekaina, uztaila eta abuztuan haurren zaintzaile lanetan edo partikularreko irakasle gisa jardun nahi dut. Esperientzia zabala dut alor honetan. 688695958

Emakume bat etxeko lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest .664192760 / 722 48 39 94.

Esperientzia eta erreferentziak ditut. Etxeko lanak, pertsona helduak zein umeak zainduko nituzke, orduka zein egun osoz. 602830982

BESTELAKOAK

Zaldi bat salgai. 2013koa. Nuri. Domatua. Burukoa, arnesa eta eserlekuarekin. Informazio gehiago, telefono hauetan: Amaia 943341900 eta Joxan 699870308.

Alabak giltza batzuk galdu ditu, astelehen ostegun bitartean, Torre Eiffel duela giltza kate gisa. Topatu badituzu, hona deitu: 617002046

Batxilergo 1. eta 2. mailako matematika klase partikularrak emateko norbaiten bila nabil. Klaseak gure etxean izatea nahiko genuke. 649482775

Frantseseko klaseak ematen ditut udan, norberaren etxean. 600766068 Jokin

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburua... Ataluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Asteleheneetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitetgia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiaro Kiroldetgia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

**Zorionak Liherr!**

Iritsi da egun handia eta ederki ospatzera goaz!

Heriotzak

Maria Arregi

Izeta

Urriaren 29an

hil zen,

82 urterekin

**Goardiako farmaziak**

Osteguna 05 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 06 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 07 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 08 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Astelehena 09 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteartea 10 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteazkena 11 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Gainontzeko datak www.cfgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Osteguna 12 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 13 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 14 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 15 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

URRUTIA-MARTIN-HERNANI

Etxeberri auzoa, 1. Florida

943 55 77 38

Agenda azaroa

06 ostirala

- "Nafarroa 1620 Nafarroaren Loraldia" erakusketa Sutegin. 18:00-20:00.
- Euskaraldirako izen-ematea eta txapa banaketa. 19:00-20:00 artean Santuenean.

07 larunbata

- Mikel Markez eta Erramun Martikorena 18:00etan Sutegin. Sarrerak Lizardin salgai.
- "Nafarroa 1620 Nafarroaren Loraldia" erakusketa Sutegin. 11:00-13:00/18:00-20:00.

08 igandea

- "1620 Nafarroa beheregaina" antzezlanaren antzezlan 17:00etan Sutegin.
- "Nafarroa 1620 Nafarroaren Loraldia" erakusketa Sutegin. 11:00-13:00/18:00-20:00.
- Euskaraldirako izen-ematea eta txapa banaketa, 18:30-19:30 artean Kaxkoan.

Igande honetan "1620 Nafarroa beheregaina" antzezlanaren antzezlan Sutegin

Pèir Lostau Nafarroako Parlamentuko presidentek "obra argigarri bezain harrigarria idatzi zuen Donapaleun, Frantziaren diktataren kontra: *Ihardespena*". Kale Barroka antzerki taldeak antzezlan bat osatu du argitalpen honen inguruan. "Antzerki barroko honetan entzuten ditugu Nafarroako agintari gorenaren tesiak independentziaren berresteko".



Kale Barroka antzerki taldearekin batera hurbilduko da Asisko Urmeneta marrazkilaria.

Antzezleak: Daniel Arbeletxe, Mariañes Gorostiaga, Xan Mari Irigoien.
Musikaria: Mixel Etxekopar.

Azaroak 8, igandea

- 17:00etan "1620 Nafarroa beheregaina" antzezlanaren antzezlan auditorioan.
- Partaideak:
Mintza eta marra: Asisko Urmeneta.

Datozenak

Xiberotarren otarrak eskuragarri

Aurtengo banaketa Covid-19ak baldintzatua egongo da. Abenduaren 1era arte konfinamendua ezarri dute Ipar Euskal Herri osoan. Momentuz, abenduaren 10 eta 11ko asteburuan banatu asmo dituzte saskiok. Nafartarrek ohartarazi dutenez, "egun horiek alda daitezke itxialdiak luzatuak baldin bada". Kasu horretan, hartuemanetan jarriko lirake kanpaina hau bideratzen ari diren taldeekin. Argi dena da 3 otar jarriko dituztela eskuragarri. Produktu sorta eta xehetasunak ikaskolien atarian aurkituko dituzte.

Informazio gehiago, datorren aste-karian.

"Nafarroa 1620: Nafarroaren Loraldia (loaldia)" zikloa

Azaroak 3-8

- "Nafarroa 1620 Nafarroaren Loraldia (loaldia)" erakusketa Sutegin.
Erakusketa ikusteko ordutegia:
- Asteartea-igandea, 18:00-20:00.
- Larunbata-igandea, 11:00-13:30.

Azaroak 3, asteartea

- 19:00 "Nafarroa, Euskal Estatua... 2020?" Iñigo Larramendiren hitzaldia Sutegin erakusketa aretoan.

Azaroak 5, osteguna

- 19:00 'Iparraldekoen ikuspegia' Eneko Bidegainen hitzaldia Sutegin erakusketa aretoan.

Azaroak 7, larunbata

- 18:00 Mikel Markez eta Erramun Martikorena Sutegin. Sarrerak: 5 euro Lizardin.

Azaroak 8, igandea

- 17:00 "1620 Nafarroa beheregaina"

antzezlanaren antzezlan auditorioan.

Sarrerak eskuragarri

Oharra: Mikel Markez eta Erramun Martikorenaren kontzerturako izan ezik, gainerako ekitaldietarako sarrera doan, baina sarrera kopuru mugatua. Aurrez usurbilkultura.eus atarian eskuragarri. Antolatzailea: Nafartarrak Taldea. Laguntzaileak: Usurbilgo Udala, Nafartalde.

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

BERTSO ANZERKIA **Urpekaririk**

azaroak 13, **OSTIRALA**, 18:00 Suteגי **SARRERAREKIN**
haur eta gaztetxoentzat (6-11 urte)

KONZERTUA **Anari, Malen&Maddi**

azaroak 20, **OSTIRALA**, 20:00 Suteגי **SARRERAREKIN**

KONZERTUA ETA FILMA **Peru Galbete**

azaroak 14, **LARUNBATA**, 20:00 Suteגי **SARRERAREKIN**

DANTZA **Korrontzi Dantzan +**

ORBELDI dantza taldearekin

azaroak 21, **LARUNBATA**, bi saio 18:00 eta 20:00 Suteגי **SARRERAREKIN**

FILM ETA SOLASALDIA **Oskar Alegriaren Zumiriki**

azaroak 15, **IGANDEA**, 18:00 Suteגי **SARRERAREKIN**

ANZERKIA **Fadoak entzuten zituen gizond**

azaroak 22, **IGANDEA**, 18:00 Suteגי **SARRERAREKIN**

Sarrerak: Lizardi eta Noaun aldez aurretik. Bazkideek prezio berezian eskuratu ahal izango dute sarrera bat Noaualko egoitzan



noauna

Usurbilgo Udala



NOAUNA!KO KULTURALDIA 2020

**USURBIL
AZAROA**





Deskargatu ezazu app^{-a}



Eta gozatu ezazu
abantaila eksklusiboez:

- DESKONTUAK DENDETAN
- ZERBITZU ESKLUSIBOAK
- HAURRENTZAKO DOAKO KLUBA
- DESKONTUA DUTEN AISIALDI-SORTAK
- EKITALDIETARAKO SARRERA
- SUSTAPENAK ETA ZOZKETAK...



Ezagutu guztiak gure App-an!

#Urbilover izateak bere abantailak ditu!
Info. gehiago www.urbil.es-eko Urbilovers atalean.